



## 2. HOBARIAREN BALDINTZAK

**2.1.-** Hobaritutako intsuldaketak: Hobariturik egongo dira BBVA Taldeko erakundeek kudeatzen eta merkaturatzen ez dituzten inbertsio-funtsen intsuldaketa guztiak (kanpoko intsuldaketak), baldin eta \_\_\_\_\_ (e)tik \_\_\_\_\_ (e)ra bitartean (biak barne) eskatu izan badira \_\_\_\_\_ Funtsaren \_\_\_\_\_ kontratura, horren zenbatekoa izanik xede-funtsaren CNMVren liburuxkan kontratatua izateko ezarritako gutxienekoaren berdina edo handiagoa.

**2.2.-** Iraunaldia: Buletin honi atxikitzearekin, Titularra/k konpromisoa hartzen du(te) hobaria jaso zu(t)en partaidetzen kopurua \_\_\_\_\_ (e)ra arte osorik harpidetuta mantentzeko.

Guztira 20.000,00 euroko muga jarriko da Partaide bakoitzeko Funts hau edo hobari-kanpaina honetara atxikitako beste edozein FUNTS xede duten kanpoko intsuldaketengatik hobariak kobratzeko, \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ bitartean Inbertsio Funtsetatik jasotako intsuldaketak direnean. Muga hori aplikatzeko, partaideak lehen titular gisa agertzen den kontratuetan jaso izan dituen hobariak bakarrik hartuko dira kontuan. Beraz, lehen titularrak jasotako hobarien batura zenbateko horretara iristen bada, ez da inolako hobaririk jasoko, nahiz eta kontratuaren gainerako titularkideak muga horretara iritsi.

## 3. HOBARIAREN ABONUA

**3.1.-** Hobaria Funtsera intsuldatzeko eskaera gauzatzen den unean ordainduko da, dagokion atxikipen fiskala egin eta gero. Titularrak/ek hau eskatzen dio(te) BBVAri:

Intsuldaketaren xede den Funtsean partaidetzak harpidetzea.

**3.2.-** Hobariaren zenbatekoarekin harpidetutako hobari edo partaidetza gehigarriak ez dira egongo lotuta aurreko 2.2 paragrafoan ezarritako iraunaldiari.

## 4. HOBARIAREN ITZULKETA

**4.1.-** Aurreko 2.2 atalean ezarritako iraunaldian Titularrak/ek beren partaidetzak osorik itzultzeko edo Funts osoa kanpaina honetan jasotzen diren FUNTSEN bestelako inbertsio-funts batera eskualdatzeko agintzen badu(te), jasotako hobariaren zenbateko gordina itzuli beharko dio(te) BBVAri, 4.2 paragrafoan zehaztutako formularen arabera.

**4.2.-** Aurreko 2.2 paragrafoan ezarritako iraunaldian Titularrak/ek agintzen badu(te) bere partaidetzen zati bat itzultzea edo Funtsa kanpaina honetan jasotzen diren FUNTSEN bestelako inbertsio-funts batera partzialki eskualdatzea, eta, horren ondorioz, hobaria eragin zuten partaidetzen kopurua baino txikiagoa geratzen bada Funtsean, Titularra/k jasotako hobariaren zenbateko gordina itzultzeraz behartuta egongo d(ir)a, hobariaren xede ziren itzultitako edo intsuldatutako partaidetza kopuruaren proportzioan, hurrengo formularen arabera:

$$IZ: \text{Kobratutako hobari gordina} \times \text{Itzultitako edota eskualdatutako inbertsioaren \%} \times T$$

Non, = = > IZ: Itzuli beharreko zenbatekoa = = > Itzultitako edota intsuldatutako inbertsioaren %: Hobariaren xede ziren itzultitako edo intsuldatutako partaidetza kopurua / (Hobaria eragin zuten harpidetutako partaidetza kopurua - Nahitaez itzultitako partaidetza kopurua\*).

= = > G: Itzuli edo intsuldatu zenetik iraunaldiaren amaierara arte geratzen den egun kopurua / iraunaldiko egun kopurua, guztira.

**4.3.-** Itzuli behar izanez gero, Titularrak/ek berariazko baimena ematen dio(te) BBVAri Funtzari atxikitako titularr(ar)en BBVAko kontuan jartzeko eskatutako itzulketa edota intsuldaketa horien zenbatekoa, hobariaren itzulketari dagokion zatian.

Aurrekoa ezin bada egin, Titularrak/ek baimena ematen dio(te) BBVAri bere izenean Funtsaren gainerako partaidetzak proportzionalki itzultzeko eta itzulketa horren zenbatekoa hobariaren itzulketari dagokion zatian jasotzeko.

Era berean, aurreko aukera ere ezinezkoa bada, Titularrak/ek baimena ematen dio(te) BBVAri, aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe, hobaria itzultzearen ondoriozko zorra konpentsatu dezan bere izenean dauden kontu, gordailu eta kontratu guztien saldo hartzekodunekin, edozein dela ere bere eskubidearen titulua eta mugaeguna, BBVAk horretarako aurreratutako ahal izango baititu. Titulartasun partekatua izanez gero, konpentsazio hori egin ahal izango da konpentsatu beharreko kreditua eta zorra titular bati, batzuei edo guztiei egozteko modukoak izan ala ez.

\* Nahitaezko diru-itzulketak: Funtsaren ezaugarri zehatzak direla-eta, horren azalpen-liburuxkak partaidetzak itzultzeko betebeharra ezartzen badu, itzulketa horiek ez dute berekin hobariaren itzulketa ekarriko.

## 5. FISKALITATEA

Hobaria ordaintzerakoan edo itzultzerakoan indarrean dagoen fiskalitatea aplikatuko da. Agiri hau sinatzean, eta indarrean dagoen legeria eta Zergen Zuzendaritza Nagusiak egoera berbera edo antzekoer buruz egindako kontsultetan emandako erantzunetan adierazitako irizpideak kontuan hartuta, BBVAk honako hau irizten dio:

- Hobaria kapital higigarriaren errendimenduztat hartzen da eta %19ko atxikipenari lotuta dago, Nafarroako Foru Komunitatean izan ezik, kasu horretan atxikipena %19koa baita. Lehen 6.000 euroen %19ko (Nafarroan %19) eta kopuru horren gaindikinaren %21eko zergak ordaintzen dituen aurrezpenaren likidazio-oinarrian sartuko litzateke, Euskadin izan ezik, azken horretan %20ko tasa finkoan zergapetzen baita.

- Hobariaren itzulketa, aurreko zenbakian aurreikusitako kasuan, ondare-galeratzat har daiteke, izaera zigortzailea duelako. Hala badagokio, ondare-elementu bat eskualdatzetik ez datorrenez, zerga-oinarri orokorrean sartzeko aukera egongo litzateke, irabaziekin konpentsatu ahal izango liratekeelarik, eta, saldoa negatiboa bada, oinarri horren etekin positiboekin (lan-etekinak, adibidez), etekin horien %25eko mugarekin. Eta, hala eta guzti, saldoa negatiboa bada, hurrengo lau urteetan konpentsa daiteke, hurrenkera berean.

Hau orain, doktrina-korronte batzuek uste dute ez gaudela ondare-aldaketa baten aurrean, baizik eta kapital higigarriaren etekin negatibo baten aurrean; kasu horretan, konpentsatu egingo luke aurrezkiaren IBren etekin positiboekin (dibidenduak, interesak, bizi-aseguruen errendimenduak), ekitaldi horretakoekin edo, saldo nahikorik ez balego, hurrengo lau ekitaldietakoekin.

Titularrak/ek adierazten du(te) baldintza hauen zehaztapenak irakurri eta ulertu izan ditu(zt)ela, eta onartu egiten du(t)ela horren harpidetzarekin, bi aletan sinatuta.

MADRILen, \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_ren \_\_ (e)(a)n Titulara/k